

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

4144

AGINDUA, 2020ko irailaren 30ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta -laguntzetarako deialdia egiten duena 2020-2021 ikasturterako.

EAEren Autonomia Estatutuak (abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartua) 16. artikuluan ezartzen duenez, «Konstituzioaren lehen xedapen gehigarrian xedatutakoa betetze aldera, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoa da irakaskuntza bere luze-zabalean, maila eta gradu guztietan, molde eta espezialitate orotan, Konstituzioaren 27. artikuluari eta berau garatzen duten lege organikoei kalterik egin gabe, Konstituzioaren 149.1.30 artikulua Estatuari aitortzen dizkion ahalmenei kalterik egin gabe eta hori betearazteko eta bermatzeko beharrezko den goi-ikuskaritzari kalterik egin gabe».

Halaber, herritar guztiek dute hezkuntzarako eskubidea eta irakaskuntzako askatasuna, eta botere publikoen zeregina da dauden mugak edo desorekak berdintzera bideratutako neurriak hartzea, hezkuntzara berdintasun egoeran iritsi ahal izateko.

Horregatik, aintzat hartuta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; dirulaguntzei buruz indarrean dagoen legeria, hain zuzen ere azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onesten duen Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategineko VI. titulua eta VII. tituluko III. kapitulua, eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2020. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 27ko 13/2019 Legea, hauxe

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da honako beka eta laguntza hauen oinarriak iragartzea eta onartzea:

1.– Maila hauetako ikasleak eskolatzeko ikasketa-bekak eta -laguntzak, agindu honen I. kapituluan jasotako oinarrien arabera: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta musikako eta dantzako oinarrizko irakaskuntzak 2020-2021 ikasturterako.

2.– Maila hauetako ikasleak eskolatzeko ikasketa-bekak eta -laguntzak, agindu honen II. kapituluan jasotako oinarrien arabera: derrigorrezko hezkuntzaren ondoren egiten diren unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak, 2020-2021 ikasturterako.

3.– Agindu honen xede diren beka eta laguntzei aplikatu beharreko prozedura erkideari buruzko artikulua III. kapituluan jasota daude.

2. artikulua.– Kreditu erabilgarria.

60.000.000 euro bideratuko dira helburu horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako finkatutako aurrekontu-partiden kontura.

Behar izanez gero, adierazitako zenbatekoak handitu ahal izango dira, kontuan harturik ebatzeko dauden eta ebazpen-proposamena duten eskabideen zenbatekoa, eta horiek ebatzi baino

2020ko urriaren 8a, osteguna

lehenago. Horren berri, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeak emango du ebazpen baten bitartez.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek administrazio-bideari amaiera ematen dio, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango diote interesdunek Hezkuntzako sailburuari hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegian bi hilabeteko epean, agindua aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 30a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

I. ERANSKINA

I. KAPITULUA

IRAKASKUNTZA-MAILA HAUETARAKO IKASKETA-LAGUNTZAK: HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA, DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA ETA MUSIKAKO ETA DANTZAKO OINARRIZKO IRAKASKUNTZAK

1. artikulua.– Laguntza jaso dezaketen ikasketak.

Kapitulu honetako ikasketa-laguntzak unibertsitateaz kanpoko ikasketa hauetakoren bat egiten duten ikasleei bideratuta daude.

- a) Haur Hezkuntza;
- b) Lehen Hezkuntza;
- c) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza;
- d) Musikako eta dantzako oinarrizko ikasketak.

2. artikulua.– Bekaren edo laguntzaren osagaiak.

Deialdi honetan araututako ikasketa-beka edo -laguntzek osagai hauetako bat edo gehiago eduki ahal izango dute:

- a) Kuota-osagaia, 0 eta 1 urte bitarteko ikasleak.
- b) Irakaskuntza-osagaia.
- c) Joan-etorrien osagaia.
- d) Eskola-materialen osagaia.
- e) Jantoki-osagaia.

3. artikulua.– Kuota-osagaia, 0 eta 1 urte bitarteko ikasleak.

Haur Hezkuntzako lehenengo zikloko 0 eta 1 urte bitarteko ikasleek ordaindu behar duten kuota murrizteko da osagai hau.

Zenbatekoak hilean 90 eurokoak izango dira, eta osagai honek ezingo du inolaz ere gainditu ikasleak ordaindu beharreko kuota.

4. artikulua.– Irakaskuntza-osagaia.

1.– Osagai honek ezingo du inolaz ere gainditu 2020-2021 ikasturtean matrikulatuta dagoen ikastetxean ikasleak ordaindu behar duen kuota.

2.– Kasu hauetan ez da laguntzarik emango:

- a) Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoak.
- b) Hezkuntza-itun osoko ikastetxe edo mailak.
- c) Kontzeptu honengatik kuotarik ordaintzen ez duten ikastetxeak.
- d) 0 eta 1 urte bitarteko ikasleak.

e) Toki-korporazioen ikastetxeetako 2 urteko ikasleak.

3.– Hauek izango dira zenbatekoak:

a) Haur Hezkuntzako 2 urteko ikasleak: 200 euro.

b) Musikako eta dantzako oinarrizko irakaskuntzetako ikasleak: 295 euro.

5. artikulua.– Joan-etorrietako osagaia.

1.– Musikako eta dantzako oinarrizko irakaskuntzetako ikasleentzat eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat, joan-etorrietarako diruz lagundu gabeko garraioa erabiltzen denean eta joan-etorriok 5 km edo gehiagokoak direnean.

2.– Osagai hau emateko, ikasleen bizilekutik ikastetxera dagoen distantzia hartuko da kontuan kalkulua egiteko, eta eskala honen eta zenbateko hauen arabera banatuko da:

a) 5 eta 10 km bitarteko distantzia, 192 euro.

b) 10 km baino gehiago eta 30 km bitarteko distantzia, 385 euro.

c) 30 km baino gehiago eta 50 km bitarteko distantzia, 762 euro.

d) 50 km-tik gorako distantzia, 993 euro.

3.– Osagai honen zenbatekoa zein den jakiteko, kontuan hartuko da asteen zenbat egunetan bertaratu behar duen.

6. artikulua.– Eskola-materialen osagaia:

1.– Osagai hau maila guztiei emango zaie, Haur Hezkuntzako lehenengo zikloari izan ezik.

2.– Ezingo dute osagai hau eskuratu baldin eta Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailan ari diren ikasleek uko egiten badiote «Curriculumara garatzeko material didaktikoaren eta bitartekoen programari».

3.– Hauek izango dira zenbatekoak:

a) Haur Hezkuntza (2. zikloa), 78 euro.

b) Lehen Hezkuntza, 117 euro.

c) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, 159 euro.

d) Gainerako mailak: 202 euro.

4.– Egoera hauetan ez dira zenbateko horiek emango:

a) Lehen Hezkuntzako ikasleak, baldin eta ikastetxe publikoetan ikasten badute; halakoetan, 38 euro emango dira lehen eta bigarren mailatarako, eta 50 euro hirugarren, laugarren, bosgarren eta seigarren mailatarako.

b) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren mailako ikasleak, baldin eta ikastetxe publikoetan ikasten badute; halakoetan, 60 euro emango dira.

7. artikulua.– Jantoki-osagaia.

1.– Osagai hau emango zaie Haur Hezkuntzako lehen zikloko 2 urteko haurrei, Haur Hezkuntzako 2. ziklokoei, Lehen Hezkuntzako ikasleei, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoei eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei, baldin eta jantokia erabiltzen badute.

2.– Osagai hau baliatzeko eskubidea izateko, ikasturtean jantokira 20 egun baino gehiagotan joan izana justifikatu beharko du ikasleak. Kasu guztietan, betekizun hauek egiaztatu beharko dira:

- a) Ikasleak jantoki-zerbitzua baliatzen duela eguerdian.
- b) Administrazioari ez zaiola kostua bikoizten.

3.– Osagai honen zenbatekoa honela kalkulatu da: jantokira doan egun-kopurua –gehienez ere 178 egun– bider ordaindutako prezioa, betiere egunean 4 eurotik beherakoa bada. Hortik gorakoa izanez gero, azken kopuru hori hartuko da erreferentziazat osagai honen zenbatekoa kalkulatzeko.

4.– Edonola ere, osagai honegatik eman beharreko gehieneko kopurua 712 euro-koa da.

8. artikulua.– Errenta-mugak.

Honako errenta-muga hauek aplikatuko dira kapitulu honetako hezkuntza-mailak ikasteko beka eta laguntzen osagaiak emateko:

- Haur Hezkuntzako mailan (1. zikloan), familiaren errentak ezin izango du 1. muga gainditu.
- Haur Hezkuntzako mailan (2. zikloan), familiaren errentak ezin izango du 2. muga gainditu.
- Gainerako mailetan:

* Eskola-materialen osagairako, familiaren errentak ezin izango du 3. muga gainditu.

* Gainerako osagaietarako, familiaren errentak ezin izango du 2. muga gainditu.

| Kide konputagarrien kopurua | 1. muga euroak | 2. muga euroak | 3. muga euroak |
|-----------------------------|----------------|----------------|----------------|
| 1 | 8.143 | 10.668 | 14.826 |
| 2 | 13.350 | 17.377 | 25.308 |
| 3 | 17.567 | 22.820 | 34.352 |
| 4 | 20.201 | 27.069 | 40.796 |
| 5 | 23.232 | 30.717 | 45.598 |
| 6 | 26.717 | 34.241 | 49.224 |
| 7 | 30.724 | 37.576 | 52.810 |
| 8 | 35.333 | 40.882 | 56.380 |
| + 1 | +3.500 | +3.282 | +3.562 |

– 8tik gorako kide konputagarri bakoitzeko, errenta-mugetan (+1) gisa ezarri diren kopuruak gehituko dira.

9. artikulua.– Bizikidetzaren edo familia-unitatearen errentaren kalkulua.

1.– 2019ko ekitaldian PFEZaren aitortzea aurkeztu duten kide konputagarrien errenta zehazteko, zerga-oinarri orokorra eta aurrezkiaren zerga-oinarria batuko dira. Zerga-oinarri orokor osoak edo zati batek jarduera ekonomikoen etekinak baditu, eta etekin horiek zeinu negatiboa badute, emaitza 0 izango da. Gainerako zenbatekoari kuota likidoa kenduko zaio. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan jasota ez dauden diru-sarrerak eta laguntzak gehitu egingo zaizkio aurreko formularekin ateratako emaitzari.

2.– Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortzea egiteko obligaziorik izan ez, eta halakorik aurkeztu ez duten kide konputagarrien errenta honela kalkulatu da:

a) 2019ko ekitaldian edozein kontzeptu dela-eta lortutako diru-sarrera guztiak batuko dira (lan-etekina, langabezia-prestazioak eta -laguntzak, pentsioak, gizarte-laguntzak, salbuetsitako errentak...), baita ohiko etxebizitza ez diren hiri-ondasunen etekina ere –PFEZaren ondorioetarako konputagarria–, betiere 2019ko ekitaldian aplikatzekoa den zerga-araudiaren arabera.

b) Batura horretatik kendu beharko da aplikatzeko diren gastu kengarriak (Gizarte Segurantzaren etab.) eta konturako atxikipenek sortutako zenbatekoa.

3.– Aipatutako zergaren ondorioetarako aitortutako diru-sarreraren datuak eta/edo zerga horretatik kanpo aitortutakoak txikiagoak badira Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren edo urte horretan errolatuta egon zen autonomia-erkidegoko laguntza baliokidearen erregulazioaren arabera bizikidetzaren unitateari legokiokeen zenbatekoa baino, justifikatu beharko da zergatik ez zen eskaera egin edo zergatik ukatu zitzaion, eta urte hartako bizi-baliabideak egiaztatu beharko dira (Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren laguntzak eta beste udal-, foru- edo probintzia-laguntza batzuk, halakorik balego).

4.– Ez da diru-sarreratzat hartuko administrazio publikoek emandako ikasketa-beken edo -laguntzen zenbatekoa.

5.– Harrera-familietan diren ikasleei dagokienez, honako hau joko da errenta garbitzat: ikasleak jasotzen dituen diru-sarrerak, hots, Foru Aldundiak emandako laguntzak. Kasu horietan, harrerari buruzko agindua eta aldundiak erabakitako harrerako baldintzak aurkeztu beharko dira.

10. artikulua.– Kenkariak.

Bizikidetzaren unitatearen errenta zehaztu ondoren, aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera, honako kontzeptuengatik dagozkion zenbatekoak kenduko dira:

1.– Bizikidetzaren unitatearen kide konputagarriaren errentaren % 10, eskatzailea guraso bakarreko familia bateko kide bada eta familia-unitateak diru-iturri bakarra badu: aitak edo amak besteren kontura egiten duen lana edo/eta jasotzen duen pentsioa (ezintasun-pentsioa, alargun-pentsioa, zurtasun-pentsioa). Eskatzaileak edo neba-arrebaren batek diru-sarrerak izanez gero, kenkari hau aplikatuko da, betiere diru-sarrerak dituzten kide horietako bakoitzak urtean lortutako guztizko zenbatekoa 2.000 eurotik beherakoa bada.

Kenkari honen ondorioetarako, guraso bakarreko familiazat hartzen da guraso, tutore edo harreragile bakarra duena, eta familia-liburuaren edo tutoretza edo harrera ezartzen duen dokumentu ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.

2.– Familiako kide konputagarri guztiek ekarritako diru-sarreraren % 50. Familiaren sostengatzaile nagusiaren eta haren ezkontidearen diru-sarrerak ez dira horretan sartzen.

3.– Familia ugariak izateagatik aplikatuko den kenkaria.

Kide konputagarria den neba-arreba bakoitzarengatik 525 euroko kenkaria egingo da bizikidetzatza/familia unitatearen errentaren gainean, familia-egoitzan bizi bada, eskatzailea barnean dela, baldin eta kategoria orokorreko familia ugariak badira; kopuru hori 800 eurokoa izango da kategoria bereziko familia ugarietan. Eskatzailea bera bada familia ugariaren titularra, aipatutako kopuruak familia osatzen duen seme-alaba bakoitzarengatik kenduko dira.

4.– Desgaitasunen bat duen kide konputagarri bakoitzarengatik aplikatuko den kenkaria:

Bizikidetzatza- edo familia-unitatearen errentari kenkari bat aplikatuko zaio desgaitasuna legez aitortua izan eta lan-errentarik edo antzekorik ez duen kide konputagarri bakoitzarengatik. Kenkari hori 1.811 eurokoa izango da legez kalifikatutako % 33ko edo gehiagoko eta % 65etik beherako desgaitasunen bat duen bizikidetzatza-unitateko kide konputagarri bakoitzarengatik, eskatzailea barnean dela. Kenkaria 2.881 eurokoa izango da desgaitasuna % 65ekoa edo handiagoa denean. Ikasleak berak % 33 eta % 65 arteko desgaitasuna badu eta mugikortasuna mugatuta badu, edo % 65eko edo goragoko desgaitasuna badu, kenkaria 4.000 eurokoa izango da.

5.– 1.176 euroko kenkaria egingo da 2020-2021 ikasturtean unibertsitate-ikasketak edo goi-mailako beste ikasketa batzuk egiten ari den anai-arreba konputagarri bakoitzeko, baldin eta ikasketak direla-eta familiaren bizilekutik kanpo bizi bada eta beka eskatzen badu. Kenkari hori aplikatu ahal izateko, inguruabar hori eskabidean adierazi beharko da, horretarako aurreikusitako atalean.

6.– Salbuespen gisa, COVID-19ak eragindako osasun-krisiak ondorio kaltegarriak izan baditu eskatzailearen baten familiaren egoera ekonomikoan, eskatzaile horiek % 5eko kenkaria aplikatzeko eskubidea izango dute konputatutako errenta osoaren gainean.

Horretarako, egiaztatu beharko da bizikidetzatza-unitatearen sostengatzaile ekonomiko nagusiari COVID-19ak kalte egin diola lan arloan, eta justifikatu beharko da langabezia, enplegu-erregulazioko espedienteetan edo jarduera-itxieran egon direla alarma-egoerak iraun duen bitartean (pertsona autonomoen kasuan, gutxienez 3 hilabetez, hau da, alarma-egoeraren iraupen berean edo handiagoan), eta diru-sarrerak murriztu direla familia-unitatean.

II. KAPITULUA

IRAKASKUNTZA-MAILA HAUETARAKO BEKAK: BATXILERGOA, LANBIDE HEZIKETARAKO SARBIDE ETA PRESTAKUNTZA IKASTAROA, OINARRIZKO LANBIDE-HEZIKETA, ERDI-MAILAKO ETA GOI-MAILAKO LANBIDE HEZIKETA, MUSIKA ETA DANTZAKO IRAKASKUNTZA PROFESIONALAK, ARTE PLASTIKOETAKO ETA DISEINUKO HEZIKETA-ZIKLOAK, KIROL-IRAKASKUNTZAK ETA HIZKUNTZA-IRAKASKUNTZAK

11. artikulua.– Beka jaso dezaketen ikasketak.

Kapitulu honetako beka unibertsitateaz kanpoko ikasketa hauetakoren bat egiten duten ikasleei bideratuta daude:

- a) Batxilergoa.
- b) Lanbide Heziketako zikloak, erdi-mailakoak eta goi-mailakoak.
- c) Arte plastikoak eta diseinua. Heziketa-zikloak.

d) Musikako eta dantzako irakaskuntza profesionalak.

e) Kirol-irakaskuntzak.

f) Hezkuntza-administrazioaren titulartasuneko eskola ofizialetan egiten diren hizkuntza-irakaskuntzak.

g) Lanbide Heziketara sartzeko probetarako prestakuntza-ikastaroak eta sarbide-ikastaroak, eta erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko prestakuntza-ikastaro espezifikoak, Lanbide Heziketako irakaskuntzak emateko baimena duten ikastetxe publikoetan eta ikastetxe pribatu itunduetan emanak.

h) Oinarrizko Lanbide Heziketa.

12. artikulua.– Bekaren osagaiak.

Deialdi honetan araututako bekek osagai hauetako bat edo gehiago eduki ahal izango dute:

a) Eskatzailearen errentari lotutako zenbateko finkoko osagaia.

b) Eskatzaileak ikasturtean duen bizilekuari lotutako zenbateko finkoko osagaia.

c) Oinarrizko bekaren osagaia.

d) Errendimendu akademikoan izandako bikaintasunari lotutako zenbateko finkoko osagaia.

e) Zenbateko aldakorreko osagaia.

13 artikulua.– Eskatzailearen errentari lotutako zenbateko finkoko osagaia.

1.– Kapitulu honen 11. artikuluan a) letratik e) letrara bitartean zerrendatutako ikasketetan matrikulatuta dauden ikasleek jaso ahal izango dute zenbateko hau.

2.– Zenbatekoa 1.700 eurokoa izango da.

3.– Ezohiko osagaia erabiliko da ekonomia-egoera bereziki zaila duten pertsonen ikasten laguntzeko. Horregatik, eskatzaileek honako eskakizun hauek bete beharko dituzte:

a) Irakaskuntzak aurrez aurreko erregimenean egitea.

b) Bizikidetzaren edo familia-unitatearen egiaztatutako diru-sarrerak Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta baino txikiagoak badira, justifikatu beharko dute 2019ko ekitaldi fiskalean gizarte-laguntzetako batzuk kobratu zituztela, hala nola, Lanbideren Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) eta Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria (EPO), GSINen eta SEPEren beste laguntza batzuk, eta legezko udal- edo foru-laguntzak.

4.– Bizikidetzaren edo familia-unitatearen errentak ezin du gainditu 18. artikuluan zehaztutako 1. muga.

14 artikulua.– Eskatzaileak ikasturtean duen bizilekuari lotutako zenbateko finkoko osagaia.

1.– Kapitulu honen 11. artikuluan a) letratik e) letrara bitartean zerrendatutako ikasketetan matrikulatuta dauden ikasleek jaso ahal izango dute zenbateko hau.

2.– Zenbatekoa 1.600 eurokoa izango da. Halere, zenbateko hori ez da inoiz izango prestazioaren benetako kostua baino handiagoa.

3.– Osagai hau emateko orduan, asteko eskola-orduak ez dira 20 baino gutxiago izango, eta kontuan izango da ikaslea bizi den udalerrian edo bizilekutik distantzia txikiagora ba ote den ikasleak egin nahi duen maila, eredu eta lansaio bereko ikasketarik ematen duen ikastetxerik, eta ikastetxe horrek ba ote duen plaza librerik. Era berean, ikasleak egiaztatu beharko du etxetik kanpo bizi beharra duela, dela familiaren etxetik ikastetxera dagoen distantziagatik, dela diren garraibideengatik.

4.– Familia-etxebizitzat hartuko da eskatzailearen aita edo ama bizi den tokia, betiere ikastetxetik hurbilen dagoena, nahiz eta hori legezko helbidea ez izan.

5.– Behar bezala egiaztatu beharko dira ikasturtean zehar ikasketengatik ohiko etxebizitzatik kanpo bizi izana eta horren kostua. Horretarako, ikaslearen izena jasotzen duen alokairu-kontratuaren kopia aurkeztu beharko da, bai eta fidantza ordaindu izanaren eta alokairuaren lehen hilabetearen egiaztagiria ere. Ez da onartuko 4. mailara arteko odolkidetasuneko eta 2. mailara arteko ezkontza-ahaidetasuneko senideen pisuen alokairu-kontraturik.

6.– 25.4 artikulua araberak, familiaren laguntza ekonomikorik gabe bizitzeko baliabideak dituzten ikasleek ezingo dute eskuratu egoitza-osagaia; izan ere, ohiko bizilekutzat hartuko da ikasturtean zehar izango duten bizilekua, nahiz eta erroldan ageri den bizilekua ez izan.

7.– Bizikidetzak edo familia-unitatearen errentak ezin du gainditu 18. artikuluan zehaztutako 2. muga.

15. artikulua.– Oinarrizko bekaren osagaia.

1.– Kapitulu honen 11. artikuluan zerrendatutako ikasketetako edozeinetan matrikulatuta dauden ikasleek jaso ahal izango dute zenbateko hau.

2.– Zenbatekoa 300 eurokoa izango da.

3.– Osagai hau bateraezina izango da errentari lotutako zenbateko finkoko osagaiarekin.

4.– Bizikidetzak edo familia-unitatearen errentak ezin du gainditu 18. artikuluan zehaztutako 3. muga.

16. artikulua.– Errendimendu akademikoan izandako bikaintasunari lotutako zenbateko finkoko osagaia.

1.– Kapitulu honen 11. artikulua a) letratik e) letrara bitartean zerrendatutako ikasketetan matrikulatuta dauden ikasleek jaso ahal izango dute zenbateko hau.

2.– Zenbatekoa 50 eta 125 euro bitartekoa izango da, aurreko ikasturtean lortutako batez besteko notaren arabera, honela banatuta:

| Ikaslearen batez besteko nota | Zenbatekoa (euroak) |
|-------------------------------|---------------------|
| 8,00 eta 8,49 puntu bitartean | 50 euro |
| 8,50 eta 8,99 puntu bitartean | 75 euro |
| 9,00 eta 9,49 puntu bitartean | 100 euro |
| 9,50 puntu edo gehiago | 125 euro |

3.– Osagai hau emateko, aurreko ikasturteko batez besteko nota hartuko da kontuan. Bitartean urte akademikoren bat igaro bada ikasketarik egin gabe, eginiko azken ikasturteko batez besteko nota hartuko da kontuan.

4.– Bizikidetzaren edo familia-unitatearen errentak ezin du gainditu 18. artikuluan zehaztutako 3. muga.

17. artikulua.– Zenbateko aldakorreko osagaia.

1.– Kapitulu honen 11. artikuluan zerrendatutako ikasketetako edozeinetan matrikulatuta dauden ikasleek jaso ahal izango dute zenbateko hau.

2.– Gutxieneko zenbatekoa 60 eurokoa izango da.

3.– Bizikidetzaren edo familia-unitatearen errentak ezin du gainditu 18. artikuluan zehaztutako 2. muga.

18. artikulua.– Errenta-mugak.

1.– Honako errenta-muga hauek aplikatuko dira kapitulu honetako hezkuntza-mailetarako beken osagaiak emateko:

| Kide konputagarrien kopurua | 1. muga euroak | 2. muga euroak | 3. muga euroak |
|-----------------------------|----------------|----------------|----------------|
| 1 | 8.422 | 13.236 | 14.112 |
| 2 | 12.632 | 22.594 | 24.089 |
| 3 | 16.843 | 30.668 | 32.697 |
| 4 | 21.054 | 36.421 | 38.831 |
| 5 | 24.423 | 40.708 | 43.402 |
| 6 | 27.791 | 43.945 | 46.853 |
| 7 | 31.160 | 47.146 | 50.267 |
| 8 | 34.529 | 50.333 | 53.665 |
| + 1 | +3.368 | +3.181 | +3.391 |

– 8tik gorako kide konputagarri bakoitzeko, errenta-mugetan (+1) gisa ezarri diren kopuruak gehituko dira.

2.– Bekaren edo laguntzaren zenbatekoak emateko, muga hauek aplikatuko dira:

a) 1. muga, errentari lotutako zenbateko finkoa emateko.

b) 2. muga, bizilekuari lotutako zenbateko finkoa eta zenbateko aldakorra emateko.

c) 3. muga, oinarrizko bekaren zenbatekoa eta errendimendu akademikoan izandako bikaintasunari lotutako zenbateko finkoa emateko.

19. artikulua.– Bizikidetzaren edo familia-unitatearen errentaren kalkulua.

1.– 2019ko ekitaldian PFEZaren aitorpena aurkeztu duten kide konputagarrien errenta zehazteko, zerga-oinarri orokorra eta aurrezkiaren zerga-oinarria batuko dira. Zerga-oinarri orokor osoak edo zati batek jarduera ekonomikoen etekinak baditu, eta etekin horiek zeinu negatiboa badute,

emaitza 0 izango da. Gainerako zenbatekoari kuota likidoa kenduko zaio. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan jasota ez dauden diru-sarrerak eta laguntzak gehitu egingo zaizkio aurreko formularekin ateratako emaitzari.

2.– Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpena egiteko obligaziorik izan ez, eta halakorik aurkeztu ez duten kide konputagarrien errenta honela kalkulatu da:

a) 2019ko ekitaldian edozein kontzeptu dela-eta lortutako diru-sarrera guztiak batuko dira (lan-etekina, langabezia-prestazioak eta -laguntzak, pentsioak, gizarte-laguntzak...) baita ohiko etxebizitza ez diren hiri-ondasunen etekina ere –PFEZaren ondorioetarako konputagarria–, betiere 2019ko ekitaldian aplikatzekoa den zerga-araudiaren arabera.

b) Batura horretatik kendu beharko da aplikatzeko diren gastu kengarriek (Gizarte Segurantzaren etab.) eta konturako atxikipenek sortutako zenbatekoa.

3.– Aipatutako zergaren ondorioetarako aitortutako diru-sarreraren datuak eta/edo zerga horretatik kanpo aitortutako txikiagoak badira Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren edo urte horretan erroldatuta egon zen autonomia-erkidegoko laguntza baliokidearen erregulazioaren arabera bizikidetzaren unitateari legokiokeen zenbatekoa baino, justifikatu beharko da zergatik ez zen eskaera egin edo zergatik ukatu zitzaion, eta urte hartako bizi-baliabideak egiaztatu beharko dira (Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren laguntzak eta beste udal-, foru- edo probintzia-laguntza batzuk, halakorik balego).

4.– Harrera-familietan diren ikasleei dagokienez, honako hau joko da errenta garbitzat: ikasleak jasotzen dituen diru-sarrerak, hots, Foru Aldundiak emandako laguntzak. Kasu horietan, harrerari buruzko agindua eta aldundiak erabakitako harrerako baldintzak aurkeztu beharko dira.

20. artikulua.– Kenkariak.

Bizikidetzaren unitatearen errenta zehaztu ondoren, aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera, honako kontzeptuengatik dagozkion zenbatekoak kenduko dira:

1.– Bizikidetzaren unitatearen kide konputagarriaren errentaren % 10, eskatzailea guraso bakarreko familia bateko kide bada eta familia-unitateak diru-iturri bakarra badu: aitak edo amak besteren kontura egiten duen lana edo/eta jasotzen duen pentsioa (ezintasun-pentsioa, alargun-pentsioa, zuztasun-pentsioa). Eskatzaileak edo neba-arrebaren batek diru-sarrerak izanez gero, kenkari hau aplikatuko da, betiere diru-sarrerak dituzten kide horietako bakoitzak urtean lortutako guztizko zenbatekoa 2.000 eurotik beherakoa bada.

Kenkari honen ondorioetarako, guraso bakarreko familiaz hartzen da guraso, tutore edo harreragile bakarra duena, eta familia-liburuaren edo tutoretza edo harrera ezartzen duen dokumentu ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.

2.– Familia-errentaren % 20, eskatzailea erabateko umezurtza eta 25 urtetik beherakoa denean.

3.– Familiako kide konputagarri guztiek ekarritako diru-sarreraren % 50. Familiaren sostengatzaile nagusiaren eta haren ezkontidearen diru-sarrerak ez dira hor sartzen.

4.– Familia ugariak izateagatik aplikatuko den kenkaria.

Kide konputagarria den neba-arreba bakoitzarengatik 525 euroko kenkaria egingo da bizikidetzaren unitatearen errentaren gainean, familia-egoitzan bizi bada, eskatzailea barnean dela, baldin eta kategoria orokorreko familia ugariak badira; kopuru hori 800 eurokoa izango da kategoria

bereziko familia ugarietan. Eskatzailea bera bada familia ugariaren titularra, aipatutako kopuruak familia osatzen duen seme-alaba bakoitzarengatik kenduko dira.

5.– Desgaitasunen bat duen kide konputagarri bakoitzarengatik aplikatuko den kenkaria:

Bizikidetzaren edo familia-unitatearen errentari kenkari bat aplikatuko zaio desgaitasuna legez kalifikatua duen eskatzailearengatik edo eskatzailearen neba-arreba edo seme-alaba bakoitzarengatik. Kenkari hori 1.811 eurokoa izango da legez kalifikatutako % 33ko edo gehiagoko eta % 65etik beherako desgaitasunen bat duen bizikidetzaren unitateko kide konputagarri bakoitzarengatik, eskatzailea barnean dela. Kenkaria 2.881 eurokoa izango da desgaitasuna % 65ekoa edo handiagoa denean. Eskatzailea bera baldin bada % 65eko desgaitasun-maila edo handiagoa duena, kenkaria 4.000 eurokoa izango da.

6.– 1.176 euroko kenkaria egingo da 2020-2021 ikasturtean unibertsitate-ikasketak edo goi-mailako beste ikasketa batzuk egiten ari den anai-arreba konputagarri bakoitzeko, baldin eta ikasketak direla-eta familiaren bizilekutik kanpo bizi bada eta beka eskatzen badu. Kenkari hori aplikatu ahal izateko, inguruabar hori eskabidean adierazi beharko da, horretarako aurreikusitako atalean.

7.– Salbuespen gisa, COVID-19ak eragindako osasun-krisiak ondorio kaltegarriak izan baditu eskatzailearen baten familiaren egoera ekonomikoan, eskatzaile horiek % 5eko kenkaria aplikatzeko eskubidea izango dute konputatutako errenta osoaren gainean.

Horretarako, egiaztatu beharko da bizikidetzaren unitatearen sostengatzaile ekonomiko nagusiari COVID-19ak kalte egin diola lan arloan, eta justifikatu beharko da langabezia, enplegu-erregulazioko espedienteetan edo jarduera-itxieran egon direla alarma-egoerak iraun duen bitartean (pertsona autonomoen kasuan, gutxienez 3 hilabetez, hau da, alarma-egoeraren iraupen berean edo handiagoan), eta diru-sarrerak murriztu direla familia-unitatean.

III. KAPITULUA

UNIBERTSITATEAZ KANPOKO MAILETAKO IKASLEAK ESKOLATZEKO IKASKETA-BEKA ETA -LAGUNTZEN PROZEDURA ERKIDEAK

21. artikulua.– Betekizun orokorrak.

1.– Deialdi honetan jasotzen diren ikasketek onarpen ofiziala izan behar dute, eta hezkuntza-administrazioak onartutako ikasketa-planekin bat etorri.

2.– Agindu honetan ezarritako ikasketaren bat egin beharko dute ikasleek, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe baimenduetan.

3.– Ikasleak profesional gisa aritzeko gaitzen duen titulu akademikoren bat baldin badu, laguntza jaso ahal izateko ezinbestekoa izango da egin nahi dituen ikasketak duen titularen jarraipena izatea.

22. artikulua.– Ukapenak.

Egoera hauetan, beka edo laguntza ukatu egingo da:

a) Baimendu gabeko ikastetxe pribatuetako ikasleek ez dute ikasketa-laguntzarik jasotzerik izango, ikastetxean zein ikasketa egiten den gorabehera. Hala ere, ikasketa horietako irakasgai guztietako azterketak ikastetxe ofizialetan egiten badituzte, onartu egingo dira.

b) Baimendu gabeko ikastetxeetako edo Haur Hezkuntzako lehen zikloa irakasteko ikasteen eroldan inskribatu gabeko haur-eskoletako ikasleak.

c) Haurreskolak Partzuergoko neska-mutilak.

d) Dirulaguntzen onuradun izateko ezgaitzen duen legezko edozein arrazoi izatea edo deialdi honetan eskatzen diren betekizunak ez betetzea.

23. artikulua.– Beken eta laguntzen zenbatekoa.

1.– Ikasleak jaso ditzakeen osagai guztien baturak emango du beka edo laguntzaren zenbatekoa, betiere agindu honetan ezartzen diren arauen arabera. Zenbatekoa, gehienez, zerbitzu bakoitzaren benetako kostuaren parekoa izango da, inoiz ere ez hortik gorakoa.

2.– Inork ezin dezake jaso agindu honetan arautzen diren beka edo laguntzetariko bat baino gehiago, nahiz eta aldi berean agindu honetan aipatzen diren beste ikasketa batzuk egin.

24. artikulua.– Hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak dituzten ikasleei zuzendutako laguntzak eta ikasketa-laguntzak.

1.– Desgaitasunen baten, jokabidearen nahasmendu larriaren, autismoaren espektroko nahasmenduaren edo adimen-gaitasun handiaren ondorioz hezkuntza-laguntzaren behar espezifikoak duten ikasleei zuzendutako zaizkie ikasketa-laguntzak eta sorospenak, maila hauetako ikasketak egiten ari badira: Haur Hezkuntzako bigarren zikloa, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloak, Oinarrizko Lanbide Heziketa, eta hezkuntza-behar espezifikoak dituzten ikasleentzako lanbide-heziketako beste heziketa-programa batzuk.

2.– Sorospenak eskolako jantokiaren gastuetarako eta eskola-garraioaren gastuetarako izango dira, eta familia ugarikoak diren eta desgaitasunen baten edo jokabidearen nahasmendu larriaren ondorioz hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleei emango zaizkie. Sorospenak emateko, ez dira kontuan hartuko familiaren errenta eta ondarea.

3.– Desgaitasunen baten edo jokabidearen nahasmendu larriaren ondorioz hezkuntza-laguntza espezifikoak behar duten ikasleentzako laguntza eta sorospenen zenbatekoak eta osagaiak hauek izango dira:

| Osagaiak | Zenbatekoa (eurotan) |
|--|----------------------|
| Irakaskuntza-laguntza | Gehienez, 862 |
| Eskola-garraiorako laguntza edo sorospena | Gehienez, 617 |
| Eskola-jantokirako laguntza edo sorospena | Gehienez, 574 |
| Eskola-egoitzarako laguntza | Gehienez, 1.795 |
| Asteburuko garraiorako laguntza | Gehienez, 442 |
| Hiri-garraiorako laguntza | Gehienez, 308 |
| Lehen Hezkuntza, DBH eta Oinarrizko Lanbide Heziketako mailetarako eskola-materialerako laguntza | Gehienez, 105 |
| Gainerako mailetarako eskola-materialerako laguntza | Gehienez, 204 |
| Pedagogia-berreziketarako laguntza | Gehienez, 913 |
| Hizkuntza-berreziketarako laguntza | Gehienez, 913 |

4.– Adimen-gaitasun handiei lotutako hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleei, laguntza bakar gisa, gehienez ere 913 euro eman ahal izango zaizkie kolektibo horrentzako programa espezifikotik izena ematek eta horietara joatek eratorritako gastuak ordaintzeko, baldin eta programa horiek Administrazioak doan ematen ez baditu. Laguntza hori ezin izango da eman laguntza hori doan ematen denean. Osagai hori emateko, gaitasun handi hori egiaztatu beharko dute behar bezalako kualifikazioa duten langileek, eta hezkuntza-administrazioak ezarritako baldintzetan.

5.– Berreziketa pedagogikorako, hizkuntzaren berreziketarako eta adimen-gaitasun handiarekin lotutako ikasketetarako laguntza-eskabideekin batera, zerbitzua ematen duen zentroak edo berrezleak emandako memoria aurkeztu beharko da. Memoria horretan, zerbitzuaren ezaugarri buruzko informazio zehatza jaso beharko da; besteak beste, asteko eta ikasturte bakoitzeko ordu-kopurua, zerbitzua ematen duen espezialista, eta ikasturte bakoitzeko hileko eta guztizko kostua. Eman beharreko laguntzaren zenbatekoa zehazteko, ikasturteko 10 hilabeteetan sortutako kostua hartuko da kontuan, gehienez ere.

Zerbitzu edo funts publikoek edo, hala badagokio, ikastetxeei zerbitzu hori finantzatzeko emandako laguntzek behar bezala asetzen badituzte gastuak, ez da laguntza edo sorospenik emango. Haur Hezkuntzan ez da emango eskola-materialerako laguntzarik.

6.– Errenta-muga hauek aplikatuko dira hezkuntza-laguntza espezifikoa behar duten ikasleentzako ikasketa-laguntzen osagaiak emateko:

| Kide konputagarrien kopurua | Muga (euroak) |
|-----------------------------|---------------|
| 1 | 11.937 |
| 2 | 19.444 |
| 3 | 25.534 |
| 4 | 30.287 |
| 5 | 34.370 |
| 6 | 38.313 |
| 7 | 42.041 |
| 8 | 45.744 |
| + 1 | +3.672 |

8tik gorako kide konputagarri bakoitzeko, (+1) gisa ezarri diren kopuruak gehituko dira.

25. artikulua.– Bizikidetzaren unitateko kide konputagarriak zehaztea.

1.– Bekaren ondorioetarako, hauek dira kide konputagarriak:

a) Eskatzailea.

b) Aita, ama, tutorea edo adin txikikoa jagon eta babesten duena.

c) 2019ko abenduaren 31n hogeita bost urte baino gutxiago dituzten neba-arreba ezkongabeak (neba-arrebek ahalmen urritasun fisikoa, psikikoa edo sentsoriala badute, hogeita bost urtetik gorakoak izan daitezke), ohiko bizilekuan bizi direnak.

d) Gurasoen aurreko ahaideak, baldin eta bizileku berean bizi badira.

e) Aplikatu beharreko araudian onartuta dauden harrera-egoeretako batean dauden pertsonak; inguruabar hori behar bezala alegatu eta egiaztatu beharko da.

f) Eskatzailearen aitaren edo amaren ezkontide berria edo izatezko bikotekide edo antzeko bikotekide berria, ohiko bizilekuan bizi dena.

g) Aparteko zirkunstantziengatik eskatzaileari harrera ematen dioten beste senide edo familia-loturarik gabeko beste pertsona batzuk.

Beraz, kasu horietan guztietan, horien errentak eta ondarea zenbatuko dira.

Salbuespen gisa, kide konputagarritzat jo ahal izango dira eskatzailearekin bizi diren beste senide batzuk, eskatzailea zurtza baldin bada, eta, betiere, eskatzaileak behar bezala egiaztatzen badu ekonomikoki haien mende dagoela eta 2019. urtean ez zuela beste sostengatzailerik izan.

2.– Gurasoak legez dibortziatuta edo bananduta badaude, bekaren eskatzailearekin bizi ez dena ez da kide konputagarritzat joko; halere, mantenu-pentsio eta/edo konpentsazio-pentsio gisa ordaintzen diren kopuruak bizikidetzaren diru-sarreratzat zenbatuko dira, judizialki onartutako neurrien arabera.

3.– Seme-alaben zaintza-araubidea zaintza partekatua denean, hauek hartuko dira kide konputagarritzat: bekaren eskatzailearen gurasoak, horien seme-alaba komunak eta baita aipatutako bizileku berean bizi diren gurasoen aurreko ahaideak ere, betiere udalaren ziurtagiriaren bidez egiaztatzen badute.

4.– Eskatzailea jatorrizko familiarik independizatu bada, eta bere bizikidetzaren edo familia-unitatea osatu baldin badu, eta unitate berri horretan bere ohiko bizilekua baldin badauka, honako hauek izango dira kide konputagarriak, bekaren ondorioetarako:

a) Eskatzailea.

b) Bere ezkontidea edo izatezko bikotekidea, erregistratua zein ez.

c) Hogeita bost urtetik beherako seme-alabak (seme-alabek desgaitasun funtzional fisikoa, psikikoa edo sentSORIALA badute, hogeita bost urtetik gorakoak izan daitezke, gurasoen mende bizi badira).

d) Foru-araudian onartutako harrera-egoera batean dauden pertsonak; eta inguruabar hori behar bezala alegatu eta egiaztatu beharko da.

e) Eskatzailearen ahaideak, edo beraren ezkontide edo izatezko bikotekidearenak, ohiko bizilekuan bizi badira.

f) Kide konputagarritzat joko da 2019ko abenduaren 31n eskatzailearekin etxe berean bizi den pertsona –diru-sarrera propioak dituen–, nahiz eta haien artean ez izan ahaidetasun-harremanik eta ezin justifikatu alokairuzko etxebizitza partekatzen dutela.

5.– Eskatzailea jatorrizko familiarik independizatu bada edo zurtza baldin bada, eta pertsona bateko bizikidetzaren unitate bat osatzen badu, independentetzat jo ahal izateko, honela ziurtatu beharko du ekonomikoki independentea dela eta gurasoen etxetik irten dela:

a) Gurasoen etxetik irten dela egiaztatzeko, eskatzaileak bere bizilekuan, eta ez gurasoen etxean, erroldatua egon beharko du (erositako edo alokatutako etxebizitza batean, bakarrik edo pisu partekatuta batean; eta bizilekua ezin da izan odol bidezko 4. mailara arteko ahaidetasuna duen edo ezkontza bidezko 2. mailara arteko ahaidetasuna duen senide batena). Halere, alokairuaren

zerga-aitorpena egiaztatzen bada, odol bidezko eta ezkontza bidezko ahaidetasun-maila horiek ere onartuko dira.

Edo, hala badagokio, zurztasun-egiaztagiria.

b) Ekonomikoki independentea dela egiaztatu beharko du, gastuak (janaria, arropa, etxebizitza, garraioa) ordaintzeko behar beste ekonomia-baliabide dituela ziurtatuz. Ondorio horietarako, eskatzailearen baliabide ekonomikoak kalkulatzeko, haren diru-sarrerak batuko dira eta ez dira kontuan hartuko ohiko bizilekuan bizi den beste pertsona batenak. Diru-sarrerak 1. mugaren parekoak edo txikiagoak baldin badira, pertsona horrek Lanbideak kudeatutako diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako dirulaguntza osagarria eskatu ahalko ditu, bai eta beste laguntza batzuk ere. Hortaz, dirulaguntza horiek eskatu dituela eta zer egoeratan dauden egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko ditu. Diru gastuak ordaintzeko beste diru-sarrera dagoela egiaztatzeko xedez, honako hauek aztertuko dira:

– Eskatzaileak aurkeztu dituen diru-sarreraren eta gastuen arteko balantzea, hori ziurtatzeko agi-riekin batera. Administrazioak beharrezkotzat jotzen dituen dokumentu guztiak eskatu ahal ditu.

– Zerga-egiaztagiria, gurasoek berarengatik ez dutela zerga-kenkaririk egiten berresteko.

Eskatzaile bat ekonomikoki independentea dela jo ahal izateko, gurasoek edo legezko tutoreek ezin dute eskatzaileari lotutako zerga-kenkaririk egin PFEZaren aitorten-likidazioan.

Eskatzaileak emantzipazio-programa baten laguntza jasotzen badu, eta horretan janaria eta ostalua sartuta baldin badaude, independentzia familiarraren betekizuna betetzetik salbuesita egongo da, baina independentzia ekonomikoari lotutako agiriak aurkeztu beharko ditu.

6.– Ikasle independenteen kasuan, familiaren egoitza joko da ikasturtean ikaslearen bizileku dena; beraz, ez da egoitza-osagaia emango.

26. artikulua.– Ondare-mugak.

Kide konputagarrien errenta edozein delarik ere, eskatutako beka edo laguntza ukatu egingo da honako kasu honetan: 2019ko abenduaren 31n, kide konputagarri guztien ondarea adierazten duten elementuen balioak muga hauetakoren bat gainditzen badu:

1.– Hiri-finkak.

a) Kide konputagarrien hiri-finken katastro-balioen batura, gehienez ere, 42.900 eurokoa izango da.

Gehienezko katastro-balioaren ondorioetarako, ez dira kontuan hartuko sostengatzaile ekonomiko nagusien diru-sarreraren iturria den norberaren konturako jarduera ekonomikoa egiteko erabiltzen diren eraikinak. Salbuespen hau aplikatu ahal izateko, jarduera ekonomikoa 2019ko zerga-ekitaldian higiezin horretan helbideratuta dagoela egiaztatu beharko da.

b) Konputu hori egiterakoan ez da kontuan hartuko ohiko etxebizitza den hiri-finkaren katastro-balioa.

c) Ikasketarako eskatutako beka edo laguntza ukatu egingo da, kide konputagarriek, ohiko etxebizitzaz aparte, beste bi etxebizitzaren edo gehiagoren jabetza erabatekoa badute. Zifra hori zenbatesteko, kide konputagarrien jabetzakoak izan daitezkeen etxebizitzetako titulartasun-ehunekoa batuko dira.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri batean dauden hiri-higiezinaren katastro-balioa kalkulatzeko, katastro-balioa bider 0,36 egingo da.

e) Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo dauden hiri-finken katastro-balioa kalkulatzeko, honako arau hauek aplikatuko dira:

Katastroko azken berrikuspenaren data eraginkorra 1990eko urtarrilaren 1etik 2002ko abenduaren 31ra artekoa baldin bada, katastro-balioak 0,49 koefizienteaz biderkatuko dira. Berrikuspen horren eguna 2002ko abenduaren 31ren ostekoa baldin bada, honako koefiziente hauek erabiliko dira, katastro-balioak biderkatzeko:

- 0,43 koefizientea, 2003an berrikusi direnetarako;
- 0,37 koefizientea, 2004an berrikusi direnetarako;
- 0,30 koefizientea, 2005ean berrikusi direnetarako;
- 0,26 koefizientea, 2006an berrikusi direnetarako;
- 0,25 koefizientea, 2007an berrikusi direnetarako;
- 0,25 koefizientea, 2008an berrikusi direnetarako;
- 0,26 koefizientea, 2009an berrikusi direnetarako;
- 0,28 koefizientea, 2010ean berrikusi direnetarako;
- 0,30 koefizientea, 2011n berrikusi direnetarako;
- 0,32 koefizientea, 2012an berrikusi direnetarako;
- 0,34 koefizientea, 2013an berrikusi direnetarako;
- 0,36; 2014 eta 2019 artean berrikusi direnetarako.

Nafarroako Foru Komunitateko higiezinaren katastro-balioa 0,50 koefizienteaz biderkatuko da.

2.– Landa-finkak.

a) Landa-finketan dauden eraikinen katastro-balioen batura –kanpoan utzita familiaren ohiko etxebizitza den eraikinaren katastro-balioa– ezin izango da 42.900 eurotik gorakoa izan. Eraikin horiei aurreko apartatuan ezartzen diren koefiziente biderkatzaileak aplikatuko zaizkie, eginiko azken katastro-berrikusketaren urtearen arabera.

b) Familiako kide konputagarriei dagozkien eraikinen katastro-balioak alde batera utzita, landa-finken katastroko balioen batura ezingo da izan 13.130 euro baino handiagoa, kide konputagarri bakoitzeko.

3.– Balio higigarriak.

Ikasketarako eskatutako beka edo laguntza ukatu egingo da, baldin eta bizikidetzaren unitatearen aurrezkien zerga-oinarria 1.700 eurotik gorakoa bada, edo kantitate horretakoa bada higigarrien kapitalaren etekin garbia gehi ondareen irabazi eta galera garbien arteko aldearen batura, kasu honetan izan ezik: bizikidetzaren unitatearen errenta garbiak ez gainditzea irakaskuntza-maila bakoitzerako ezarritako 1. muga.

Hortik kanpo geratuko dira ohiko etxebizitza erosi edo konpontzeko jasotzen diren dirulaguntzak.

4.– Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudian xedatutakoaren arabera zehaztuko da ondarea adierazteko elementuen balioa.

Familiako kide konputagarriek aurreko ataletan deskribatutako ondarearen elementu bat baino gehiago dituztenean, elementu bakoitzaren balioaren ehunekoa kalkulatu da, dagokion mugarekiko.

Aipatutako ehunekoen baturak ehun gainditzen duenean, ukatu egingo da ikasketarako beka edo laguntza.

5.– Merkataritza-, industria- edo lanbide-jarduerak.

Eskatutako beka edo laguntza ukatu egingo da, halaber, familiako kide konputagarri guztiek lortutako diru-sarreraren batura 155.500 eurotik gorakoa dela egiaztatzen denean:

a) Ekonomia-jardueretatik datozen diru-sarrerak, zuzeneko zenbatespenean edo zenbatespen objektiboan.

b) Kide konputagarriek nortasun juridikorik gabeko erakundeen edo beste edozein erakunde juridikoren bitartez garatutako jarduera ekonomikoetan duten ehuneko berrogeita hamarreko edo hortik gorako partaidetzatik datozen diru-sarrerak, behin jardueren guztizko diru-sarrerei partaidetzaren ehunekoa aplikatu ondoren.

Kide konputagarriek dituzten ondare-elementuen balioari % 50eko murrizketa aplikatuko zaio; kasu horretan ez dira sartzen sostengatzaile nagusiak.

Salbuespen gisa, COVID-19ak eragindako osasun-krisiak familiaren egoera ekonomikoan eragin larria izan duen eskatzaileen kasuan, eta, 2019ko ekitaldia kontuan hartuta, jarduera ekonomikoetarako gehieneko muga hori gainditzeagatik beka-eskaera ukatu bazaie, jarduera ekonomikoetatik eratorritako diru-sarreraren baturari % 5eko kenkaria aplikatzeko eskubidea izango dute.

Horretarako, egiaztatu beharko da bizikidetzaren unitatearen sostengatzaile ekonomiko nagusiari COVID-19ak kalte egin diola lan arloan, eta justifikatu beharko da langabezian, enplegu-erregulazioko espedienteetan edo jarduera-itxieran egon direla alarma-egoerak iraun duen bitartean (pertsona autonomoen kasuan, gutxienez 3 hilabetez, hau da, alarma-egoeraren iraupen berean edo handiagoan), eta diru-sarrerak nabarmen murriztu direla familia-unitatean (% 25).

27. artikulua.– Betekizun akademikoak.

1.– Lehenengo kapituluan jasotako irakaskuntza-mailetan, soilik egiaztatu beharko da ikaslea 2020-2021 ikasturterako matrikulatuta dagoela.

2.– Bigarren kapituluan jasotako irakaskuntza-mailetan, 2020-2021 ikasturtean matrikulatuta egoteaz gain, betekizun hauek ere eskatuko dira:

a) Ikastaroa errepikatzen ez egotea.

b) Ikasturteren bat ikasketarik egin gabe igaroz gero, egin den azken ikasturteari dagokionez eskatuko dira adierazi diren betekizunak.

c) Ikasketa guztiak edo zatiren bat beka baten bitartez egin badira eta ikasketak aldatzen badira, ezin izango da bekarik jaso aldaketa horrek hezkuntza-prozesuaren barruan urte bat edo

gehiago galtzea badakar. Ez da laguntza galduko, soil-soilik baldin eta indarrean dagoen lege-dian aurreikusten bada irakaskuntzako beste maila edo gradu batera pasatzea aurretik egindako ikasketen jarraipena izan daitekeela. Autonomia-erkidego honetatik kanpo bekadun izan diren ikasleek bekadun-izaera egiaztatu beharko dute. Gainerako ikasleen kasuan, automatikoki egiaztatuko da hori.

d) Oso-osoan bekarik gabe egindako ikasketak aldatzen badira, ikasketa berrietan beka lortzeko, eskatzaileak utzitako ikasketetako azken ikasturtean lortu beharreko errendimendu akademikoa hartuko da betekizuntzat.

e) Lanbide Heziketako goi-mailako graduako ikasketetako, Arte Plastiko eta Diseinuko ikasketetako eta Kirol-ikasketetako bigarren mailarako, eskatzaileak 2019-2020 ikasturtean egindako ikasketen ehuneko laurogei eduki beharko du gaingiduta, gutxienez.

f) Aurrez aurrekoa ez den modalitatean eta matrikula osoan Lanbide Heziketako eta Batxilergoko ikasketak egiten dituztenek errendimendu akademikoaren eta oinarrizko bekaren bikaintasunari lotutako zenbateko finkoari eta gutxieneko zenbateko aldakorrari dagozkien zenbatekoen % 50 jaso ahal izango dute, eta soilik lortu ahal izango dute beka dagokion ikasketa-planean ezarritakoak baino ikasturte bat gehiagoz.

g) Hizkuntza-ikasketetan, beka lortu ahal izango da dagokion ikasketa-planean ezarritako urte-kopuruan eta gehienez ere 2 hizkuntzatarako, betiere aldi berean egiten ez badira.

3.– Musika-ikasketetan, hezkuntza-prozesuan bekadun gisa jarraitzeko, ikasleak landutako musika-tresna edo emandako jakintzagaia hartuko da kontuan, maila goragokoa denean.

4.– Ikasleak genero-indarkeria jasan duten bizikidetzta-unitatekoak badira, eta aipatutako egoera justifikatzeko urruntzeko agindu judiziala, kondena-epai judiziala edo oinarrizko gizarte-zerbitzuen txostena aurkezten bada, betekizun akademikoak bete barik ere eman egingo dira laguntzak.

28. artikulua.– Datuak egiaztatzea.

1.– Eskatzaile guztien datuak automatikoki ekarri ahal izateko interkomunikazio-sistema elektronikoak erabilgarri ez dauden bitartean, eskatzaileek, eskabidearekin batera, kasu bakoitzean aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dituzte. Hori horrela izanda ere, sailak zuzenean egiaztatu ahal izango du administrazio eskudunarekin, beharrezkotzat jotzen badu.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1.c) eta e) artikuluen arabera –datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa da erregelamendu hori–, Hezkuntza Sailak datu hauek egiaztatuko ditu administrazio eskudunarekin:

Nortasun-datuak (Polizia Zuzendaritza Nagusia).

Zerga-egoitzari buruzko datuak (foru-aldundiak).

Errolda-datuak (udalak).

Errenta-mailari buruzko datuak (foru-aldundiak).

Katastro-datuak (Katastroko Zuzendaritza Nagusia).

Unibertsitateaz kanpoko eta unibertsitateko tituluei buruzko datuak (Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa).

Prestazio sozial publikoei buruzko datuak (Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala).

Langabezia-egoerari buruzko datuak (Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa).

Etxebideko datuak (Eusko Jaurlaritzza).

Familia ugarien tituluei buruzko datuak (Eusko Jaurlaritzza).

Izatezko Bikoteen Erregistroko inskripzio-datuak (Eusko Jaurlaritzza).

Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko datuak (Eusko Jaurlaritzza).

Unibertsitateko beka eskatzeko datuak.

2.– Ikusten bada beka edo laguntza emateko beharrezkoak diren betekizunak faltsutu direla edo laguntza ukatzeko arrazoi diren gorabeherak ezkutatu direla, ukatu, aldatu edo baliogabetu egingo da eskatutako beka edo laguntza.

3.– Errenta-iturriak ezkutatzuz gero, eskatutako laguntza ukatu, aldatu edo baliogabetu egingo da. Berdin dio iturri horiek norberaren konturako lana, besteren konturako lana, pentsioak, lanbide liberaleko jardunak, nekazaritza, abeltzaintza, industria edo merkataritza ustiapenak, kapital higigarriak, finkak, ibilgailuak, aparatuak edo bestelako ondare-elementuak diren. Horrek ez du esan nahi bidezko diren gainerako egintzetatik libre geratzen denik.

4.– Administrazioak, aurreko atalean aipatutako ezkutatzuz hori gertatzen dela egiaztatzeko, edozein frogamota erabili ahal izango du eta, bereziki, Foru Aldundietako Ogasun Departamentuetan eta Ogasun Ministerioan dauden datuak.

5.– Egiaztatu beharreko datu ekonomikoak atzerrikoak badira eta/edo Euskal Autonomia Erkidegoko foru-ogasunen esku ez badaude, eskatzaileak eman egin beharko du ondorio horietarako beharrezkotzat jotzen den dokumentazioa, eta beka edo laguntza ukatu, aldatu edo baliogabetu egingo da datuok behar bezala egiaztatzen ez badira.

6.– Matrikula ezeztatzen badu edo ikasketak uzten baditu, ukatu, aldatu edo baliogabetu egingo dira ikasketarako eskatutako beka edo laguntzak.

7.– Ikasketarako beka edo laguntza ukatu, aldatu edo baliogabetu ahal izango da, baldin eta bizikidetzaren unitateek justifikatzen badituzte objetiboki gastu-maila horretatik beherago dauden diru-sarrerak, baina ez badute egiaztatzen zer baliabide duten bizitzeko.

8.– Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzek beharrezko ikusten dituzten agiri osagarriak eskatu ahal izango dituzte, kasu bakoitzaren gorabehera bereziak behar bezala jakiteko.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa enpresa txiki eta ertainen kasuan ere aplikatuko da, baldin eta horien titularrak merkataritza-sozietateak badira, kide konputagarrietakoren bat sozietate horietako bazkide, partaide... bada, eta, aldi berean, sozietate horietan langile bada.

29. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Eskaera adin nagusiko ikasleak edo adingabe emantzipatuak egingo du; adingabe emantzipatu gabeen kasuan, berriz, aitak, amak edo legezko ordezkariak.

2.– Eskaera egiteko, eskaera-formulario telematikoa bete beharko da Hezkuntza Sailaren egoitza elektronikoan, helbide elektroniko honetan: www.euskadi.eus/gobierno-vasco/departamento-educacion/ – www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritzza/hezkuntza-saila/

Deialdiaren II. eranskinean dago eskabidearen eredua.

Formularioan «telefono mugikorra» eta «helbide elektronikoa» atalak betetzeko aukera ageri da. Bete ostean, ulertzen da eskatzaileak baimena ematen diola Hezkuntza Sailari agindu honetako I. eranskineko 34. artikuluan aurreikusitako ohar osagarriak helarazteko.

3.– 2019-2020 ikasturtean beka eskatu zuten eta matrikula kudeatzeko aplikazioan jasota dauden mailetan ikasketak egiten ari diren ikasleei beteta emango zaie eskaera-formularioa. Formulario hori:

– Ikastetxean jaso ahal izango da paper-formatuan, edo bide telematikotik eskuratu ahal izango da helbide elektronikoa honetan: www.euskadi.eus/gobierno-vasco/departamento-educacion/ – www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila/

Horretarako, eskatzaileek aurreko ikasturteko pasahitzak baliatu ahal izango dituzte, hurrengo 4. puntuaren zehaztutako prozedurari jarraikiz erregistratu beharko dute edota ikastetxean jasotzeko eskaera-formularioan ageri den URL helbidearen bidez.

Formularioan ageri diren datuak zuzenak direla egiaztatu ostean, edota egin beharreko aldaketak egin ondoren, eskabidea aurkeztuko da.

– Bide telematikoz, aplikazioan eskaera-formularioa elektronikoki sinatuta edota ikastetxean jasotako formularioan ageri den pasahitzaren bidez.

– Formularioa paperean sinatuta, eta honako toki hauetakoren batean aurkeztuta:

- Beka-eskaeraren xede diren ikasketak egiteko ikastetxeetan.

- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (urriaren 1eko 39/2015 Legea) 16. artikulua zehaztutako tokietan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko Dekretuan (apirilaren 29ko 72/2008 Dekretua) adierazitakoetan.

4.– Gainerako ikasleak:

a) Eskaera modu elektronikoa egiteko, www.euskadi.eus/gobierno-vasco/departamento-educacion/ – www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila/ helbidera sartu behar da, eta honela jardun:

– Ziurtagiri digitala baliatuta sartu (NAN, Izenpe txartela...) edota itsasontzien joko erabilita (B@kq); edo, halakorik izan ezean,

– Sistemaren erregistratuta, helbide elektronikoa baten bidez eta honako bide hauetako bati jarraituta:

- HNA (Hezkuntza Nortasun Agiria) eta ikaslearen jaioteguna.

- Nortasun Agiri Nazionala (NAN), haren iraungitze-data zehaztuta. Eskatzailea atzeritarra baldin bada, atzeritarren identifikazio-zenbakia (AIZ) eta jaioteguna adierazi beharko ditu, eta, hala badagokio, atzeritarren identifikazio-txartelaren zenbakia (AIT). Kasu batean eta bestean, eskatzailearen nortasuna egiaztatu egingo da, datuak egiaztatzeke zerbitzuaren bitartez. Zerbitzu hori Administrazio Elektronikoari buruzko 21/2012 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian dago jasota.

Eskatzaileak ez baldin badauka eskabide telematikoa egiteko bitartekorik, ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxean bertan egin ahal izango du.

b) Eskabide elektronikoa erabat beteta dagoenean, aukeratu beharko du izapidetze telematikoa egiten jarraituko duen edo paperean aurkeztuko duen.

c) Aurkezpen telematikoa egitea aukeratuz gero, ezinbestekoa izango da sinadura elektronikoa izatea indarrean den ziurtagiri digitalarekin (NAN; Izenpe txartela...) edota itsasontzien joko (b@kq), eta Agindu honetako I. eranskineko 31. artikuluan zerrendatutako dokumentuak aurkeztu beharko dira eskaneatuta, baita eskaera elektronikoki sinatu ere. Orduantxe geratuko da eskabidea erregistratuta.

d) Paperean aurkeztea erabakiz gero, aplikazioak sortuko duen eskabide-formularioa inprimatu beharko da; ondoren, sinatu eta honako toki hauetakoren batean aurkeztu beharko da, Agindu honetako I. eranskineko 31. artikuluan zerrendatutako dokumentuekin batera:

– Beka-eskaeraren xede diren ikasketak egiteko ikastetxeetan.

– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (urriaren 1eko 39/2015 Legea) 16. artikulua zehaztutako tokietan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko Dekretuan (apirilaren 29ko 72/2008 Dekretua) adierazitakoetan.

30. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea.

1.– Eskabideak eta beharrezko agiriak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Beka- edo laguntza-eskabideak epe horretatik kanpo aurkeztu ahal izango dira kasu hauetan:

a) Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta gero aurkeztutako matrikulak badira, betiere matrikula-eskabidearen kopiarekin batera egiten bada eskabidea, matrikula egin eta gehienez ere hilabeteko epean.

b) Aipatutako epeak igaro ostean familiaren sostengatzaile nagusia hiltzen bada, edo arauzko adina betetzeagatik ez den bestelako arrazoiengatik nahitaezko erretiroa hartzen badu.

c) Justifikatutako arrazoi larriren bat dela eta, ikaslearen familiaren egoera ekonomikoak kalte larriak izan baditu.

Nolanahi ere, eskaera berriak 2020ko apirilaren 30era arte onartuko dira soilik.

31. artikulua.– Aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Beka-eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Dibortzioa, banaketa, erregistratutako izatezko bikotearen desegitea edo antzeko egoerak egonez gero, dibortzioari edo banaketari buruzko epaiaren fotokopia eta hitzarmen arautzailearen fotokopia, baldin eta lehenago aurkeztu ez bada. Konpentsazio-pentsioaren egiaztagiri egunertua, beharrezkoa bada, eta seme-alabentzako mantenu-pentsioarena. (Diru-sarreraren fotokopia). Familiaren egoitzan bizi diren kideen errolda-agiria eta, hala badagokio, aitaren edo amaren ezkontidearen edo bikotearen diru-sarreraren ziurtagiria.

b) Laguntza sozialen jasotzaileen kasuan, dagokion erakundeak emandako ziurtagiria.

c) Salbuetsitako diru-sarreraren kasuan: ezintasun iraunkor absolutuaren edo baliaezintasun handiko pentsioaren ziurtagiria, zurtasun-pentsioarena, kaleratzearengatik kalte-ordainena eta abar.

d) Agindu honen 10. eta 20. artikuluetan aurreikusitako kenkariak sorraraz ditzaketen kasuak egiaztatzeko agiriak.

e) Deialdi honen II. kapituluak aipatzen dituen irakaskuntzen kasuan, 2019-2020 ikasturtean lortutako batez besteko notaren ziurtagiria.

f) Honako hauek izan ezean, ikaslearen eta eskaera egiten duenaren nortasuna egiaztatzeko agiria aurkeztu beharko da: sailaren identifikazio-zenbakia, nortasun-agiri nazionala, atzerritarren identifikazio-zenbakia edo atzerritarren identifikazio-txartela.

g) Gurasoen etxetik irten dela eta ekonomikoki independentea dela egiaztatzeko, eskatzaileak egiaztatu beharko du bere bizileku propioan –ez gurasoen etxean– errolatuta dagoela –erositako zein alokatutako etxebizitza batean, bakarrik zein partekatua–; edota zurtasun-egiaztagiria, eta bizitzeko zer baliabide dituen egiaztatu beharko du, bai eta bere bizilekuari buruzko egiaztagiriak ere (erositakoa ala alokatutakoa den).

h) Familia-harreraren diren ikasleen kasuan, harrerari buruzko aginduaren eta dagokion aldundiak erabakitako harrera-baldintzen fotokopia, aldeztu aurretik aurkeztu ez bada.

i) Bizikidetzaren edo familia-unitatearen diru-sarrerak eta ekonomia-egoera adierazteko, eskatzaileak garrantzitsutzat jotzen dituen edozein agiri: kaleratze-kitapenak, enplegu-erregulazioaren espedienteak, behar bezala erregistratutako dohaintzak eta abar.

2.– Eskatzailea izango da eskabidean ematen duen informazio ekonomikoaren erantzule; hala, legez behartuta egongo da bizikidetzaren edo familia-unitatearen diru-sarrera eta ondare guztiak egiaztatzeko agiriak aurkeztera. Eskatu den laguntza ukatu ahal izango da, baldin eta bizikidetzaren edo familia-unitatearen bizi-baliabide guztiak egiaztatzeko agiriak aztertuta, Administrazioak uste badu egiaztatu diren diru-sarrerak bizikidetzaren edo familia-unitatearen gastuak baino txikiagoak direla, aurkeztu den informazioaren edo kanpoko datu batzuen arabera.

Aipatutako zergaren ondorioetarako aitortutako diru-sarreraren datuak eta/edo zerga horretatik kanpo aitortutakoak txikiagoak badira Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren edo urte horretan errolatuta egon zen autonomia-erkidegoko laguntza baliokidearen erregulazioaren arabera bizikidetzaren unitateari legokiokeen zenbatekoa baino, justifikatu beharko da zergatik ez zen eskaera egin edo zergatik ukatu zitzaion, eta urte hartako bizi-baliabideak egiaztatu beharko dira (Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren laguntzak eta beste udal-, foru- edo probintzia-laguntza batzuk, halakorik balego).

3.– Errenta-aitorpena beste autonomia-erkidegoren batean aurkeztu duten bizikidetzaren unitateek edota aurkeztutako aitortenak diru-sarrera guztiak ez baditu, esandakoaz gain, honako hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

a) Sostengatzaile nagusiaren 2019ko ekitaldiko errenta-aitorpenen (PFEZ) fotokopia guztiak eta, hala badagokio, zerga horren aitortzea egin beharra duten gainerako kide konputagarrienak. Langile autonomoak izanez gero, jardueraren etekinak kalkulatzeko aitortenaren orria ere aurkeztu beharko da.

b) Kide konputagarri guztiek lortutako diru-sarrerak egiaztatzen dituzten agiriak: gizarte-laguntzak jasotzen badituzte, dagokion erakundeak egindako ziurtagiria; diru-sarrera salbuetsiak, zenbate-

koak direla-eta aitortu gabeko diru-sarrerak, balore higigarrien errendimenduak, banku-gordailuak, kontu-korronteen interesak...

c) Profesional eta enpresaburuek aurkeztutako ordainketa zatikatuen aitortpenen fotokopiak.

4.– Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (PFEZ) aurkezteko obligaziorik izan ezean, kide konputagarri guztiek eskuratutako diru-sarreraren egiaztagiri guztiak aurkeztu beharko dira (gizarte-laguntzak jasotzeko dagokion erakundeak emandako ziurtagiria, salbuetsitako diru-sarrerak, zenbatekoa dela-eta aitortu gabeko diru-sarrerak, balio higigarrien errendimenduak, banku-gordailuak, kontu korronteko interesak...); era berean, profesionalek eta enpresaburuek aurkeztutako ordainketa zatikatuengatik aitortpenen fotokopiak ere aurkeztu beharko dira, baita artikulua honetako lehen zenbakian jasotako informazioa ere.

5.– Berreziketa pedagogikorako, hizkuntzaren berreziketarako eta adimen-gaitasun handiarekin lotutako ikasketetarako laguntzen kasuan, zerbitzua ematen duen zentroak edo berrezleak emandako memoria aurkeztu beharko da. Memoria horretan, zerbitzuaren ezaugarriei buruzko informazio zehatza jaso beharko da, asteko eta ikasturte bakoitzeko ordu-kopurua eta zerbitzua ematen duen espezialista eta ikasturte bakoitzeko hileko eta guztizko kostua barne.

6.– COVID-19ak eragindako osasun-krisiak 2020ko errentari larriki eragiten badio, egiaztatu beharko da bizikidetzaren unitateko sostengatzaile ekonomiko nagusiei COVID-19ak kalte egin diela lan arloan, eta justifikatu beharko da langabezia, aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente egoeran, enplegu-erregulazioko espediente egoeran edo jarduera-itxieran egon direla alarma-egoerak iraun duen bitartean, pertsona autonomoen kasuan, gutxienez 3 hilabetez.

32. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

1.– Ikasleak eskabide-eredua sinatuta aurkezteak, edo hura adin txikikoa izanez gero haren ordezkariaren legezko ordezkariak sinatzeak, esan nahi du sinadura horrekin erantzukizun solidariopean hau aitortzen duela:

a) Beka edo laguntzaren deialdiaren oinarriak onartzen dituela.

b) Eskabidean jarritako datu guztiak egiazkoak direla.

c) Beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribaturen partetik bestelako beka edo laguntzarik eskuratuz gero, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzako beka atalari jakinarazi beharko diola.

d) Beka edo laguntza jaso eta baliatu ahal izateko ezarritako baldintzak eta betekizunak bete-tzen dituela egiaztatuko duela, eta adierazten duela ez dagoela dirulaguntzen onuradun izateko gaitasunik gabe uzten duen inolako lege-auzitan sartuta.

e) Beka ematea bideratu zuten baldintzak bete direla egiaztatzeko beharrezko frogatze-jardueri men egingo diela, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, dirulaguntzen nondik norakoak fiskalizatzean, eskatuko dioten informazio guztia emango duela.

f) Adieraztea, berariaz ikasketak edo ikastetxea aldatu baditu, aurreko urteetan bekadun izan dela.

g) Laguntza eman duen erakundeari jakinaraztea matrikula ezeztatu dela edo laguntza emateko kontuan hartutako beste edozein baldintza aldatu dela.

h) Beka zertarako eman den, hartarako erabiliko duela. Egoera hauetakoren bat gertatzen bada, ulertuko da beka ez dela erabili jatorrian zuen xederako:

- Ikastetxean baja ematea 2020-2021 ikasturtea amaitu baino lehen.
- Eskola-orduen % 80ra edo gehiagora joan ez izana, horretarako baimen edo lekapenik izan ez badu.
- Matrikulatutako ordu edo irakasgaien % 50 gainditu ez izana, ohiko edo ezohiko deialdian.

33. artikulua.– Eskaerak kudeatzea.

1.– Bekaren edo laguntzaren xede den ikasketa eskaintzen duen ikastetxeak honako funtzio hauek egingo ditu:

a) Ikastetxeko ikasleei eta familiakoei deialdiaren berri ematea; ikasketetarako laguntza edo beka bat eskuratu nahi badute, jarraitu beharreko prozeduraz eta aurkeztu beharrezko dokumentazioaz informatzea.

b) Prozesuaren segimendua egitea, eskatzaileei behar beste informazio emanaz.

c) Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta gero, ikastetxeko zuzendariak edota, hala badagokio, idazkariak egiaztatuko du datuak egiazkoak direla; hain zuzen ere, laguntza edo beka eskatzeko aplikazioko konfigurazio-tauletan bete dituztenak.

d) Ikastetxeek eskabideak eta horiei erantsitako dokumentazioa bideratu eta prestatuko dituzte; hain zuzen, alfabetikoki antolatutako zerrendetan prestatuko dituzte, eta, ondoren, lurralde-ordezkaritzari dagokion Zuzenean zerbitzuan aurkeztuko dituzte, edo mezulariz bidali Hezkuntza Sailera.

2.– Lurralde-ordezkaritzak eskabide guztiak eta aurkeztutako dokumentazioa jasoko ditu, eta espedienteak aztertuko ditu. Horrela, baloratuko du bekaduntzat hartzeko betekizun guztiak betetzen dituzten edo ez, eta zer osagaitarako eskubidea izango luketen, betiere Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritzarekin koordinatuta; izan ere, azken organo horrek bere gain hartzen du agindu honetan araututako beka eta laguntzak kudeatzeko ardura.

Lurralde-ordezkaritzak, hala badagokio, aurkeztu ez duen dokumentazioa eskatuko dio eskatzaileari, gehienez ere 10 balioduneko epean.

3.– Eskatzaileen datu pertsonalak Unibertsitateaz Kanpoko Bekak eta Laguntzak fitxategian sartu eta tratatuko dira.

Datu pertsonalen tratamendua honako hauetan ezarritakoaren arabera egingo da: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa; eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.

Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideak hemen baliatu ahal izango dira: <https://www.euskadi.eus/proteccion-datos/>

34. artikulua.– Ebazpen-prozedura.

1.– Lurralde-ordezkaritzetan eskabideak jaso eta gero, horiek bekaren edo laguntzaren behin-behineko ebazpen-proposamenak egingo dituzte.

Lurralde-ordezkaritzek eginiko proposamenen arabera, Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritzak emango ditu bekari edo laguntzari buruzko behin-behineko ebazpen partzialak eta ondokoak.

2.– Kudeaketa Ekonomikoaren zuzendariak onartu dituen behin-behineko ebazpenen jakinarazpena Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko da, honako webgune honetan: <https://euskadi.eus>. Horrez gainera, Hezkuntza Sailaren web-orrian ere argitaratuko dira: <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus>

Emandako dirulaguntzetan, osagaiak eta emandako zenbatekoak zehaztuko dira, eta, hala badagokio, ukatutako osagaiak eta horretarako arrazoiak ere bai.

Alegazioak aurkezteko 15 egun naturaleko epea hasiko da, jakinarazpenaren datatik aurrera.

3.– Alegazioak aztertu ondoren eta epea igarotakoan, aurretik egin beharreko egiaztapenak eta izapideak eginda, Kudeaketa Ekonomikoaren zuzendariak behin betiko ebazpena emango du.

Emandako dirulaguntzetan, osagaiak eta emandako zenbatekoak zehaztuko dira, eta, hala dagokionean, ukatutako osagaiak eta horretarako arrazoiak ere bai.

Kudeaketa Ekonomikoaren zuzendariak onartu dituen behin betiko ebazpenen jakinarazpena Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko da, honako webgune honetan: <https://euskadi.eus>. Prozedura-ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordeari, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera. Horrez gainera, Hezkuntza Sailaren web-orrian ere argitaratuko dira: <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus>

4.– Sei hilabeteko epean ebatzi eta jakinaraziko dira laguntza guztiak, deialdia argitaratzen denetik aurrera. Epe hori bukatu eta ebazpen espresurik eman eta jakinarazten ez bada, interesdunek ezetsizat jo beharko dituzte eskabideak, hala ezartzen baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 24. artikuluan (urriaren 1eko 39/2015 Legea), hartatik eragotzi gabe gerora espresuki ebaztea.

5.– Hori hala izanik ere, organo kudeatzaileak beste aukera bat ere badu: interesdunei jakinarazpenen abisuak bidaltzea, SMSak edo mezu elektronikoak igorritik, eskabideetan jarri zituzten telefono mugikorretara eta helbide elektronikoetara. Abisu horiek ez dute izango, inolaz ere, egingako jakinarazpenaren baliorik.

6.– Beken behin betiko ebazpenean, jantoki-osagaiari dagokion zenbatekoa kalkulatzeko, data horretan dauden datuak erabiliko dira. Ondoren, maiatzaren azken astean, aldatu egin badira jantokira bertaratutako egunak edo beka hori emateko kontuan hartu ziren baldintzak, beka berriz kalkulatu da, deialdi honen 38. artikuluan arabera.

35. artikulua.– Gerora sortutako egoera berriak.

1.– Eskatzaileak alegatzen duenean kide konputagarrien ekonomia-egoera nabarmen aldatu dela 2019. urtetik aurrera (erreferentzia-urtea), kasu horiek kontuan izango dira.

a) Familiaren ekonomia-egoera berria kontuan hartzeko, ezinbestekoa izango da egoera sorrazi duten gertakariak eta horien nondik norakoak adieraztea eta agiri bidez egiaztatzea.

b) Bide beretik, beka edo laguntza ematerakoan edo ukatzerakoan, familiaren ondarea osatzen duten ondasunen izaera haztatuko da, bai eta errenta osatzen duten diru-sarrerena ere, batez ere kaleratzeengatik kalte-ordainen edo kide konputagarrien ekonomia-egoeran kalte larriak eragiten dituzten bestelako gorabeheren kasuan.

c) Bizikidetzaren unitatearen sostengatzailea hiltzen edo ezinbestean erretiratzen bada, edota ikaslearen familiaren egoera ekonomikoak kalte handiak izaten baditu –betiere justifikatutako arra-

zoiaren bat dela eta—, aintzat hartu ahal izango dira inguruabar horiek, baita unitatearen ekonomian duten eragina ere, sortutako egoera berria kontuan hartuta.

d) Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan ezarritako neurriek (COVID19ak eragindako osasun-krisiari aurre egitekoak) bizikidetza-unitatearen egoera ekonomikoari eragin badiote, kenkari bat aplikatuko zaie 2019ko errentari eta diru-sarrerei, 9.5, 19.4 eta 26.5 artikuluetan ezarritako baldintzetan.

2.— Gerora sortutako egoera berri horiek, artikuluko honen aurreko apartatua ezarritakoaren arabera justifikatuak, kontuan hartuko dira ikasteko beka eta laguntzen behin betiko ebazpena ematen den arte.

36. artikulua.— Beste erakunde batzuekin elkarlana.

Hezkuntza Sailak foru-aldundietako ogasun-departamentuekin lankidetzak kudeatuko du, baita administrazio publikoetako beste edozein erakunderekin ere, honako xede hauek lortzeko:

1.— Baliabide tekniko fiskalak erabiltzea, eskatzaileen familien errenten eta ondarearen benetako balioak neurtu ahal izateko.

2.— Kasu jakin batzuetan egiaztatze eta kontrol lanetarako laguntza teknikoa jasotzea. Operazio horietan eraginkortasun handiagoa lortzeko, Hezkuntza Sailak foru-aldundietako ogasun-departamentuetako Datuak Prozesatzeko Zentroei eskatuko die banaka edo bereziki ikertu behar diren kasuen zerrenda.

37. artikulua.— Laguntzak ordaintzea.

1.— Laguntza dena batera ordainduko da, hilabeteko epean, Kudeaketa Ekonomikoaren zuzendariak behin betiko ebazpena ematen duenetik aurrera.

Organo kudeatzaileak ordainketak egin direla jakinarazteko abisuak bidaliko dizkie interesdunei, SMSak edo mezu elektronikoak igorri eskabideetan jarri zituzten telefono mugikorretara eta helbide elektronikoetara.

2.— Eskatzaileak eskaera-formularioan jartzen duen kontu korrontean sartuko da laguntzaren zenbatekoa. Ez dira hala ordainduko, ordea, kudeaketa zuzeneko jantoki-zerbitzua duten ikastetxe publikoetan ikasten duten ikasleen laguntzak; izan ere, laguntza horiek zuzenean sartuko dira ikastetxe horien kontuan.

3.— Jarritako gora jotzeko errekurtsoen ondorioz gorantz aldatu beharko balitz emandako laguntzen zenbatekoa, ordainketa osagarri bat egin beharko da hilabeteko epean, aipatutako errekurtsuak osorik edo zati batean onesten dituen ebazpena ematen den egunetik aurrera.

38. artikulua.— Aldatzea, errebokatzea eta itzultzea.

1.— Aldaketa gauzatzea adostu daiteke baldin eta beka edo laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, bestelako laguntzak edo dirulaguntzak pilatuta eskuratzen badira eta helburu bera duten bestelako diru-sarrera edo baliabideak jasotzen badira. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 49.12 artikuluari jarraituz (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua), beka emateko ebazpena aldatzeko, beka edo laguntzaren onuradun izateko ezarritako gutxieneko betekizunak babestu behar dira.

Beka eman izana aldatzeko ebazpenak espedientearen entzunaldi- eta ikustaldi-izapidea izan behar du alde aurretik, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (urriaren 1eko 39/2015 Legea) 82. artikuluan aurreikusten duen moduan.

2.– Errebokatu eta, hala badagokio, itzuli egingo da beka edo laguntza emandako helburu espezifikorako erabiltzen ez denean, laguntza eskuratzeko eskatutako baldintzak betetzen ez direla egiaztatzean eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 53. artikuluan jasotako gainerako kasuetan (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua). Errebokatzea erabaki ondoren, emandako zenbatekoa oraindik ordaindu ez bada, ezingo da ordainketa eskatu, eta, ordainduta egonez gero, jasotako zenbatekoak eta horien legezko interesak itzuli beharko dira.

Itzultzeko prozedura, berriz, aipatutako Legearen 53.4 artikuluan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren 4. eta 5. artikuluetan xedatzen da.

Itzulketa agintzen duen ebazpenean, beharrezko informazioa jasoko da, itzulketa egiteko betebeharra bete dezan, legezko diruz edo txekez edo Ogasun eta Ekonomiako sailburuak baimendutako beste edozein bide erabiliz. Horretarako, bi hilabeteko epea emango zaio, dirua itzuli behar duela dioen ebazpena jakinarazten zaionetik aurrera.

Itzuli beharreko diruaren zenbatekoaren eta ikaslearen bizikidetzaren unitatearen kaudimen ekonomikoen arabera, Ogasun eta Ekonomia Sailak ordainketa gehienez hiru zatitan eta urtebeteko epean egitea onar dezake, interesdunak hala eskatuz gero, betiere Euskal Autonomia Erkidegoan diru-bilketaren inguruan indarrean dagoen araudiak xedatutakoari jarraituz.

Eskuratzeko zenbatekoak borondatez itzultzen ez badira, premiamendu-bideari ekingo zaio.

3.– Ikasketa-laguntzak aldatzeko, errebokatzeko edo itzultzeko ebazpenen berri eman ahal izango zaie agintari fiskal, akademiko edo, hala badagokio, judizialei, sor daitezkeen gainerako erantzukizunak eskatzeko.

39. artikulua.– Bateragarritasuna.

1.– Haur Hezkuntzako lehenengo zikloko laguntzak bateragarriak izango dira erakunde publiko edo pribatuetatik helburu bererako jaso daitezkeen beste edozein onurarekin, betiere horiek guztiak batuta ez bada gainditzen laguntzaren xede den gastuaren % 100. Kasu horretan, dagokion zenbatekoa murriztu egingo da.

2.– Deialdi honen I. eranskinean araututako gainerako ikasketa-laguntzak, bekak eta dirulaguntzak bateraezinak izango dira helburu bererako beste erakunde publiko edo pribatuetatik jaso daitezkeenekin.

40. artikulua.– Ikuskatzea.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak datuak benetakoak direla egiaztatzeko egintzak abiarazteko eta abiaraztea eskatzeko ahala izango du, bai eta agindu honen I. eranskinean araututakoa betearazteko ere.

2020ko urriaren 8a, osteguna

| |
|---|
| Soilik behar bereziak dituzten ikasleentzat eta adimen-gaitasun handia eta musika eta dantzako oinarriko mailako ikasketak dituzten ikasleentzat |
| Ikastetxea zurea ez den beste udalerrri batean dago? BAI <input type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/> Berreziketa pedagogikorako, hizkuntzaren berreziketarako eta adimen-gaitasun handiarekin lotutako ikasketetarako laguntzen kasuan: aurkeztu al duzu hezkuntza-laguntzaren hileko eta ikasturte bakoitzeko kostua egiaztatzen duen memoria eta dokumentazioa, eta zerbitzua ematen duen zentroaren edo berrezitzailearen txostena? BAI <input type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/> |
| Datu ekonomikoak |
| Bizikidetz-unitateko kideren batek ba al du diru-sarrerarik EAETik kanpo? BAI <input type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/> Ba al duzu errenta-aitorpenean agertzen ez den beste diru-sarrerarik? BAI <input type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/> Zenbateko osoa _____ |
| COVID-19aren osasun-krisia |
| COVID-19ak eragindako osasun-krisiak eragin larria izan badu 2020ko errentan: COVID-19aren osasun-krisiaren ondorioz langabezian, aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente egoeran, enplegu-erregulazioko espediente egoeran edo jarduera-itxieran egon izana egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu duzu? BAI <input type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/> |
| OHARRAK |
| Oharrak (ikaslearen egoera ekonomikoa, akademikoa eta abar nahikoa argi geratzen ez dela uste bada, atal honetan eman daitezke informazio gehiago). |
| |

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- HIRI-ONDASUNEN KATASTROKO BALIOAK: etxebizitza bat baino gehiago izanez gero, ondasun higiezinaren gaineko zergaren kopia aurkeztu beharko da, bizikidetz-unitateko kideen jabetzako guztiena, hain zuzen.
- (*) DIBORTZIOA, BANAKETA, ERREGISTRATUTAKO IZATEZKO BIKOTEA DESEGITEA EDO ANTZEKO EGOEREN KASUAN: Dibortzioaren edo banaketaren epaia, hitzarmen arautzaileak, udalak eginitako bizikidetz-ziurtagiria, pentsioen egiaztagirri eguneratuak eta, hala badagokio, aitaren edo amaren ezkontidearen edo bikotekidearen diru-sarrerak.
- AITONA-AMONAK: bizikidetz-ziurtagiria, udalak emandakoa.
- (*) DESGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONAK: desgaitasun-maila aitortzen duen egiaztagiria.
- (*) HARRERA-FAMILIETAN DAUDEN ADINGABEAK: harrerari buruzko foru-aginduaren fotokopia eta dagokion aldundiak erabakitako harrerako baldintzen fotokopia.
- NEBA-ARREBA UNIBERTSITARIOA: matrikulatuta dagoela egiaztatu eta errentamendu-kontratua aurkeztu, hala dagokionean.
- PFEZ-N JASOTA EZ DAUDEN DIRU-SARRERAK: baliaezintasun-pentsioen ziurtagiriak, baliaezintasun iraunkor absolutuaren edo baliaezintasun handiko pentsioarena, zurtzasun-pentsioarena, kaleratzearengatik kalte-ordainena edo bestelako gizarte-laguntzena (DBE, gizarte-larrialdietako laguntzak, etab).
- ERRENTA-AITORPENA EGITEN EZ BADA: jasotako diru-sarrerak, bizitzeko baliaideak edo laguntzak justifikatu beharko dira agiri bidez.
- ZERGA-EGOITZA EAE-TIK KANPO IZANEZ GERO, horiez gain, honako hauek aurkeztu beharko dira:
 - Zerga-aitorpena egin duten kide konputagarrien Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorten-likidazioaren kopia osoa.
 - Errenten eta beste diru-sarrera batzuen ziurtagiriak, hala nola Gizarte Segurantzaren pentsioen eta Lanbide kudeatutako diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo/eta etxebizitzarako dirulaguntza osagarriaren ziurtagiriak.
 - Lan-etezinen ziurtagiria (10T), 2019an PFEZaren aitortpena egin ez bada.
 - Familia ugaria: txartela.
- FAMILIAREN EGOITZATIK KANPO BIZIZ GERO: errentamendu-kontratua.
- INDEPENDENTZIA-EGOERAK: errola-ziurtagiria (gurasoenaren desberdina) edo umezurtz-ziurtagiria eta eskuragarri dituen bizitzeko baliaideak.
- Pedagogia-berreziketarako, hizkuntza-berreziketarako eta adimen-gaitasun handiarekin lotutako ikasketetarako laguntza eskatzen dutenentzako DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOAK: zerbitzua ematen duen zentroak edo berrezitzaileak emandako memoria, zerbitzuaren ezaugarri buruzko informazio zehatza jasotzen duena, asteko eta ikastaro bakoitzeko ordu-kopurua eta zerbitzua ematen duen espezialista bari, baita hileko kostua eta ikastaro bakoitzeko kostu osoa ere.
- COVID-19ak eragindako osasun-krisiak eragin larria izan badu 2020ko errentan: egiaztatzea, alarma-egoerak iraun duen bitartean, langabezian, enplegu-erregulazioko espedientearekin edo jarduera-itxierarekin egon direla gutxienez 3 hilabetez, autonomoen kasuan.
- BESTELAKOAK: bizikidetz-unitatearen diru-sarrerak justifikatzeko egoki irizitako beste edozein dokumentu, hala nola kaleratze-likidazioak, enplegu-erregulazioko espedienteak, behar bezala erregistratutako dohaintzak eta laguntzak, etab.
(* Aurreko ikasturteko deialdian aurkeztu bazen, ez da berriro aurkeztu behar.

Nik, jaunak/andreak
(NAN zk:,), eskatzailearen ama, aita, edo tutorea naizen aldetik, hau

ADIERAZTEN DUT:

- Eskatzailea ez dagoela deialdi honetan parte hartzea eragozten dion inolako legezko kausatan sartuta.
- Deialdi honen oinarriak onartzen ditudala (ikus EHAA).
- Eskabide honetan jasotako datu guztiak egiazkoak direla.
- Honako beka hauen bateraezintasunen berri baduela, eta, helburu bera duen beste beka bat lortuz gero, Beken Atalari jakinaraziko diola.
- Bizikidetz-unitateko kide konputagarri guztiei jakinarazi dieudala Hezkuntza Sailak datu hauek guztiak egiaztatuko dituela ikasketak-laguntzen ondorioetarako: foru-aldundietan dauden datuak eta zerga-egoitzaren datuak (foru-aldundiak) / Erroldako Datuak (udalak) / Errenta-mailaren datuak (foru-aldundiak) / Katastro-datuak (Katastroko Zuzendaritza Nagusia) / Unibertsitateak kanpo eta unibertsitateko tituluen datuak (Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa) / Gizarte-prestazio publikoen datuak (GSIN) / Langabezia-egoeraren datuak (Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa) / Etxebideko datuak (EJ).

.....(e)n, 2020koaren(e)(a)n. Aitaren, amaren edo tutorearen
sinadura:

GARRANTZITSUA: banku-kontuaren zenbakia adierazi behar da.

ESKABIDEAK ETA AGIRIAK AURKEZTEA:

Epea: Hilabete, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Tokia: Ikastetxean, telematikoki edo deialdian aipatutako beste edozein lekutan.

Eskaera honekin lotutako beste edozein kontsulta egiteko, ikaslearen ikastetxera jo beharko da.

Datuen babesari buruzko oinarriko informazioa

Eskabideko datu pertsonalak UNIBERTSITATEAZ KANPOKO BEKAK ETA LAGUNTZAK fitxategian sartu eta tratatuko dira.

- **Arduraduna:** Hezkuntza Saila. Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritza.
- **Helburua:** Unibertsitateaz kanpoko bekak eta laguntzak kudeatzea.
- **Legitimazioa:** Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko. 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onetsia. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- **Hartzaileak:** Ez da daturik lagako, legeak horretara behartzen ez badu.
- **Eskubideak:** Datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatze eskubidea duzu, bai eta informazio gehigarrian jasotako bestelako eskubideak ere.
- **Informazio gehigarria:** Gure web-orrian kontsulta daiteke datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia: <https://www.euskadi.eus/rgpd> Hauek betez:
 - Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://www.boe.es/doue/2016/119/L00001-00088.pdf>). 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa <https://www.boe.es/boe/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673.p>